

Ordizian, 2017ko maiatzaren 8an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Jon Ander Caballero.	EH BILDU
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2017ko apirilaren 3ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
- 3.- Galde-eskeak.

PREMAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

-U.E. 5 - 3 Iturtxoko Azterketa Zehatza onartzea

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:45



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko apirilaren 24ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko apirilaren 24ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- U.E. 5 - 3 Iturtxoko Azterketa Zehatza onartzea

Alkate jaunak esan du puntua ez dela gai ordenean sartu baina espedientea osatua dagoenez, gai zerrendan sartzeko proposamena egiten du.

Puntua eguneko gai zerrendan sartzekoaren aldeko botoak: 5 (guztiak)

Alkate jaunak onartzea proposatzen duen Azterketa Zehatzaren berri eman du.

Aldeko botoak: 5 (guztiak)

Aldeko irizpena.

3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

17 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 29.173,08 €

Fakturei oniritzia eman zaie.

-14 eta 18 zenbakidun udaltzainei irekitako diziplina espedienteak

Instrukzio fasean egindako arau-haustea ez denez frogatu, 18 zenbakidun udaltzainari espedientea artxibatu zaio, eta horren berri eman da.

Udaltzaingoaren sarrera, irteera eta funtzionamendua arautzeko jarraibideen idatzizko prozedura egingo da. Zirriborroa egindakoan, Gobernu Batzordetik pasatu.

Escalante Jauna bilerara etortzea komenigarria izango litzateke bere iritzia jakiteko.

.....

4.- Galde-eskeak.

- Sukia andreak esan du ikusi duela GAOn “Giza eskubideak eta elkarbizitza” ren inguruan Foru Aldundiak diru-laguntzen inguruan hartutako erabakia.
Bere ustez ez da ezer egin. Aurten gai horien inguruan ezer egingo ote den galdetu du.

- Sukia andreak galdetu du ea alkateak Udalbatzan onartutako mozioaren aurka botoa ematen jarraitu behar duen Enirio-Aralarko Mankomunitatean.

Alkate jaunak erantzun dio orain arte bezala bere funtzioak betetzen jarraituko duela.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.